

B

BARREN

TOKIKOM

“Ez dut ulertzen nire bizitza kiroliek egin gabe”

Iñigo Lariz



Euskal Herriak Politika Egiteko Eskubidea

MANIFA

Apirilak 30
Larunbata, 17:30

**Elgoibarko
Plazan**

Arnaldo Askatu
Politika **Askatu**

Herri Ekimena
www.arnaldotegi.com

MANIFESTAZIO NAZIONALA

Elgoibarren

Apirilak 30, 17.30, Plazan

Indarrak batzeko ordua da

Doris Benegas Haddad (politikaria, Valladolid), Patricia Alvarez Rueda (pentsionduan, Leioa), Fermin Muguruza (musikaria, Irun), Michel Celaya (errugbilari ohia, Miarritze), Xabier Arzallus (politikaria), Maialen Lujanbio (bertsolaria, Hernani), May Roca Balm (biologoa, Katalunia), Mariano Ferrer (kazetaria), Juanjo Tellaetxea (baserritarra, Araba), Fito Rodriguez (EHUko irakaslea), Ritxi Mendiguren (futbolari ohia), Mirian Villasante (irakaslea, Elgoibar), Rafa Larreina (politikaria, Araba), Andoni Egaña (bertsolaria, Zarautz), Kontxi Kerexeta (soziologoa, Gasteiz), Eba Ferreira (futbolari ohia), Dani Pardo Cartoy (ikaslea, Galiza), Idoia Bulman Eizagirre (dendaria, Zumaia), Juan Urra Caro (iturgiña), Martxelo Otamendi (kazetaria), Fernando Pintado Nieto (FPko irakaslea, Extremadura), Niko Moreno (Elorrioko alkatea), Dionisio Iriondo Lasa (langabetua), Henry Spencer (irakaslea, Oxford, Erresuma Batua), Eñaut Elorrieta (Ken7ko abeslaria), Juan Luis Zabala (idazlea).

Afizio, ofizio, gustu eta kolore guztietako lagun sorta. Tartean, abertzale ez dan bakarren bat ere bai. Talde zabala, anitza eta plurala. Elgoibartarrok osatzen dogun bezalako talde zabal, anitz eta plurala. Izen ospetsu zein anonimo hōnek bixar gure herriko kalietan egingo dan manifestazio nazionalarekin bat egiten debe. 3.000tik gora dira www.arnaldotegi.com webgunian jasotako atxikimenduak, eta goiko zerrendia izen hōrren entresaka bat da.

Biharbada zuk ez dozu Arnaldok babesten dittuan ideiekin bat egingo, edo bai, auskalo. Uka eziña zera da: gure herrixak bizi dauan gatazka honi irtenbide justu bat emateko ahalegiñan

urratsak egin badira, beste lagun batzuek egindakuakin batera, berak egindako lanari esker izan dala.

Bi dira bixarko ekitaldixan plazaratuko dittugun eskaerak. Bata, Arnaldo kalia nahi eta behar dogula. Bestia, laga diezagutela euskal herritarro gure etorkizuna iñungo inposaketarik gabe, erabakitzen. Nor ez dago ados bi aldarrikapen hōrrekin. Eta zu? Indarrak batzeko ordua da.



Asier Zengotita
Alberdi

"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitzez gurekin harremanetan:
943 744 112 edo barren@elgoibarkoizarra.com

**“Bi dira bixarko ekitaldixan plazaratuko dittugun eskaerak.
Bata, Arnaldo kalia nahi eta behar dogula”**

PREST



**MONDRAGON
UNIBERTSITATEA**

902 110 436

www.mondragon.edu/prest

ATE IREKIAK

Goi Eskola Politeknikoa

ARRASATE MAIATZAK 7 larunbata, 10:30

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

ESKORATZA MAIATZAK 14 larunbata, 11:00

Enpresagintza Fakultatea

OÑATI MAIATZAK 21 larunbata, 11:00

IRUN MAIATZAK 28 larunbata, 11:00

ARETO
NAGUSIAN
*Etanri aurretik
izena eman!*



IÑIGO LARIZ

KIROLARIA

“Bizitzan ordena bat mantentzen erakusten du kirolak”

Kirola bizi du Iñigo Larizek (Elgoibar, 1983). Elgoibarko Atletismo Taldean eman zituen lehenengo pausoak, eta ordutik lorpen zerrenda luzea lortu du probatu dituen kirol espezialitate guztietan. “Burugogorra eta dena eman zalea” dela aitortu du, eta barruko egonezina ateratzen laguntzen diola kirolak. “Ez dago kirola egitea baino lasai-garri hoberik”, dio.



Atletismoan hasi zinen ume-umetan, baina txirindulari gisa ezagutu zintugun. Profesionala izatetik pauso batera gelditu zinen. Nola gogoratzen duzu garai hura?

Nostalgia puntu batekin. Errendimendu ona izan nuen, baina puntu bat falta izan zitzaidan profesionaletara salto egiteko. Italian afizionatuetan korritzeko aukera izan nuen, baina aukera hark ez ninduen horrenbeste erakartzen, eta baztertu egin nuen. Profesionaletan edo gutxienez Continental mailako talderen batean sartu nahi nuen, baina ezin! Baque taldean egin nuen urtean bizikletarako bizi izan nintzen, baina profesional izatera iritsi ez izanaren arantza hori gelditu zitzaidan, bai. 13 urterekin hasi nintzen bizikletan, eta oso oroitzen onak ditut.

Txirindularitza laga eta saltaka hasi zinen gero berriro.

Bai. Bizikletan ibili nintzenezan ez nuen txirindularitza ez zen beste kirolik egiteko aukerarik izaten. Bizikleta laga nuenean hasi nintzen

korrika eta trabesia egiten. Ate asko zabaldu zitzaizkidan orduan. 2008an Vall Fosca trabesian izena eman nuen, eta ordutik eskia engantxatuta nauka. Gaur egun, eskia da gustukuen dudan kirola. Lastima bi ordu eta erdiko bidea egin behar izatea elurra topatzeko!.

Euskal Herriko Kronoigoera Txapelketa irabazi eta bigarren egin berri duzu Mendiko Eskiko Kopan.

Lehenengo egunean Arkaitz Iruetarekin batera aritu nintzen Andres de Regil mendiko eskiko proban, eta gertatu ziren gorabehera guztiei etekina atera eta seigarren egitea lortu genuen. Bigarren egunean fisikoki oso ondo sentituta nintzen, eta aukera ikusi nuen orain bi urte Euskadiko Kronoigoera Txapelketa lortutako hirugarren postua hobetzeko. Irteera bizkorra izan zen, baina aurrean sartu eta lehena iristea lortu nuen. Ikaragarria izan zen, eskiatzen sekula ez nuelako ezer irabazi. Eta ez horregatik bakarrik. Elgoibartik

joan ginen guztiak, tartean Arkaitz bera, oso ondo aritu zirelako. Oso ondo pasatzen dugu. Morkaikoren hausnarketa prozesuaren ostean, eskiko taldetxo bat sortu dugu, baina gutxi animatzen dira txapelketetan parte hartzera, eta pena da. Trabesia egiten duten guztiak animatu nahi nituzke parte hartzera, sekulako giroa sortzen delako halako probetan. Gainera, ibilbide ezberdinak daude, eta denok izaten dugu disfrutatzeko aukera.

Mendiko karrerak, kilometro bertikalak, maratonia, duatloiak, triatloia, mendiko eskia... Kirol espezialitate asko eta gogorrenetakoak denak ere. Eta hala ere, onenen artean sarri.

Oso burugogorra naiz, eta dena eman zalea. Eskian, alde teknikoa menperatzea kostatu zait, baina behin hori lortuta, gustura nabil. Korrika, berriz, aurten jokatu dut lehenengo maratonia, eta hiru ordutik behera egin dut (2:54:00). Ez da sekulako marka, baina marka txukuna da. Entrenatzea gustatzen zait. Eliteko kirolean disziplina derrigorrezkoa da,

eta horren barruan entrenamenduak bezain-
beste zaindu behar dira jatekoa eta atsedena hartzera. Kirolean ikasitako disziplina hori oso lagungarria izan zait gero eguneroko bizitzan ere. Kirolak bizitzan ordena bat mantentzen erakusten du.

Zeure kasa entrenatzen duzu, eta, hala ere, aurre-aurrean ibiltzen zara. Ez duzu inoiz pentsatu entrenatzaile bat hartzera?

Ez. Afizionatuetan ibili nintzen, baina geroztik ez. Ni gai naiz nire burua entrenatzeko, baina egia da entrenatzaile batekin errendimendu handiagoa lortu dezakezula, harekiko errespetuz bada ere, beti saiatzen zarelako gehiago. Garai hartan oso lagungarria egin zitzaidan, baina gaur egun beste modu batean bizi dut kirola, eta egia esan helburu zehatzik ere ez daukat, beraz...

Bakarkako kirolean jardun zara beti. Taldeko kirolak ez dituzu gustuko?

Talde kirolak, edo talde kirol gisa ezagutzen ditugun horiek behintzat, sekula ez zaizkit gustatu. Oso urduria eta geldiezina izan naiz umetatik, eta baliteke egonezin hori ateratzeko modurik onena norbere buruaren kontra aritzea izatea. Neure gorputza behartzea, nik neuk badakidalako zer eman dezakeedan.

Kirola lehia baino gehiago dela irakurri genizuen Ainhoa Lendinezi eta bioi azkeneko Nire Txanda batean. Zer da zuretzako kirola?

Bai, orain bai. Orain arte kirola lehiaren sinonimoa izan da niretzako, baina orain beste modu batean hartzen dut. Ez dut ulertzen nire bizitza kirolik gabe. Ezin naiz bi egun ezer egin gabe egon, neska lagunak berak ere etxetik bidaltzen nauelako. Kirola ezinbestekoa dut, ondo sentituko banaiz. Droga bat da niretzat, eta eguna bera ere entrenamenduen arabera antolatzen dut. Egia da, hala ere, *pikau bat* naizela eta egiten dudan guztian nire onena ematen saiatzen naizela, gustatzen zaidalako nire gorputza behartzea. Ez zait galtzea gustatzen, ezta kaniketean ere! Nire eski laguna [Arkaitz Irureta] eta biok beti ibiltzen gara zeinek gehiago egin, eta horri esker, aurten asko hobetu dugu.

Afizioa izateaz gain, ofizioa ere bada zure kasuan. Lanean egindako kirola ez zaizu aski?

Bai. Irakaslea naiz, eta gainera, Durangoko Mugarra triatloi taldeko koordinatzaile edo entrenatzaile lanetan ere badihardut, baina bi gauza ezberdin dira. Nik gustura egiten dut kirola, niretzako lasaigarri onena delako.

Eskalatzen ere jardun zara.

Bai, noizean behin joaten naiz, baina ez da aintzat hartzeko modukoa ere.

Lorpen zerrenda luzea duzu, baina zeintzuk dituzu estimatuak?

Bizikletan, lasterketa bat irabazi nuen afizionatuetan, eta podium dezente egin nituen. Euskadiko selekzioarako ere hautatu ninduten eta Gipuzkoakoarekin hara-hona ibili nintzen Europa osoan. Bat nabarmenezkotan, baina, San Pedroko igoerakoa nabarmenduko nuke. 13:21ean jarri nuen marka, afizionatuetako nire lehenengo urtean, eta orain artean inork ez du hobetu. Korrika, berriz, neure burua gustura uzteko moduko marka batzuk egin ditut Behobian, maratoian eta kilometro bertikaletan [Euskadiko Kopan zortzigarren egin zuen iaz] adibidez, baina ezingo nuke bat aukeratu. Saiatu naizen kirolean maila txukun bat eman dudala uste dut, eta horrexekin gelditzen naiz ni. Kirolean bakarrik irabazten du, baina urtetik urtera norberaren marka ontzea irabaztea bezain handia da.

“Irabaztea bezain handia da urtetik urtera norbere marka ontzea”

Hemen inguruko lasterketak oso gogoko dituzu. Etxean aritzea ez al da gogorragoa?

Bai. Munduko Txapelketa batean bezain urduri jartzen naiz Karakateko Igoeran, San Pedrokoan edo Nahaste Borraste batean. Maila bat erakutsi dut azkeneko urteotan, eta horri eutsi nahi izaten diot, eta hori, jakina, presioa ere bada. Gustatzen zait, hala ere.

Aldi berean bi gauza prestatzea ez da bateragarria izaten sarri. Nola antolatzen duzu denboraldia?

Ez dut ezer planifikatzen. Zer nahi, huraxe egiten dut. Neguan, Altito y eta Andres de Regil lasterketak izaten ditut begiz jota, baina gainerakoan ezer ez. Aurten duatloi batzutan saiatu naiz, baina lar prestatu gabe. Domekarako mendiko las-

terketa bat antolatu dute Mendaron, eta, jakina, ez naiz bi hilabete hori prestatzen ibili, baina joango naiz. Urte guztian egiten dut kirola, eta horri esker, oinarri bat badaukat. Proba jakin baterako entrenatuko banu, seguruenek emaitza hobea lortuko nuke, baina ez naiz horretarako gai, dena gustatzen zaidalako.

Eskiatzen zein da zure ametsa?

Pierra Menta jokatzera, mendiko eskiko Tourra. Trabesiako eskiko hiru proba nagusietako bat da, bi urtean behin jokatzen diren Mezzalama eta Patrulla de los Glaciares probekin batera, eta nahi nuke hara iristea [laz, Arkaitz Irureta eta Iker Leonardok parte hartu zuten]. Orain bi urte Mezzalamako irteeran ere izan ginen, baina bertan bera gelditu zen proba. Pierra Menta daukat begiz jota. Zozketa bidez sartzen da han, baina aurrez egindako guztia ere baloratzen dute, eta horretarako lan egin beharra dago.

Botak pisatzen ikusi zintuenean zeharo larritu ei zen zuen ama. Obsesioa?

Jajaja. Saiatzen naiz nere esku dagoen guztia zaintzen, bai. Bizikleta mundua oso gertutik bizi da hemen, eta inor ez da harrizten norbaitek 6.000 euroko bizikleta bat erosten badu, baina aldiz botak pisatzea ez dute ulertzen. Eskian materialak zeresan handia dauka, eta saiatzen gara oinarri-oinarrizko materialean ahalik eta arinenak aukeratzeko.

Idolorik izan duzu noizbait?

Umetan Marco Pantani gustatzen zitzaidan asko, baina orain ez dut idolorik. Hori bai, proba bat amaitu eta beti begiratzeko dut sailkapena, erreferenteak nortzuk izan daitezkeen ikusteko-edo. Beti erreparatzen diet denborei. Mila probatan ibili arren, oraindik ere urduri jartzen naiz proba bat jokatu aurretik, eta beti esaten dut urduri jartzeari lagatzen diodanean lagako diodala kirola egiteari.

Gaua eta kirolarien bizimodua ez ei dira bateragarriak, baina ez du ematen zu gaizki moldatzen zarenik...

Jajaja. Gustatzen zait bai parranda, bereziki karnabaletakoa eta Txiki Egunekoa. Astebururo ezin da egin, baina tarteka derrigor egin behar dira halakoak ere, burua oxigenatzeko.

Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea,
Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA
Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zaloa Arnaiz MAKETAREN
DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK
Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres
Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola,
Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai
Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus
Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes
Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa
Lendinez, Iñigo Lariz. INPRIMATEGIA Gertu
Koop. E. TIRADA 4.800 ale LEGE GORDAILUA
SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:



GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Maitatu, ikasi, ari... euskalakari!

Euskalakaria euskara maitatu, ikasi eta erabiltzen duena da. Euskara erabiltzeko helburuz, euskara maitatuz, euskara ikasi eta hobetzeko ahaleginak egiten dituena. Horretarako urratsak egiten dituena.

Hauek izan dira Korrika 17k aldarrikatu eta erabili dituen hitzak, eta AEK euskaltegikook, garai horretan ez ezik, egunerokoan ere definizio horrekin bat egiten dutenak izaten ditugu gogoa. Horiek guztiak ondoan nahi eta behar izaten ditugu egunero, eta are hurbilago hamar eguneko lasterketa erraldoia antolatzeke sasoian, ederki asko erakutsi duten moduan hainbat eta hainbat elgoibartarrek.

Era batera edo bestera ondoan izan zaituztegun guztioi, bihotz-bihotzez, eskerrak eman nahi dizkizuegu. Jakin badakigu baten bat ahaztuko zaigula, baina zuei guztioi esker izan da Elgoibarren Korrika horren beroa eta arrakastatsua:

Udala, Atxutxiamaika, Mautitxa txaranga, Maka, Ane, Arantxa, AEK euskaltegiko hainbat ikasle, Isa, Jokin, Km-aren truke diruz lagundutakook, diru-laguntza emandako enpresa, komertzio, tabernak..., "laguntzaile" txartela egin duzuenok, Korrika Txikia eta Korrika Gaztea antolatu dituzuen ikastetxeok, hilaren 13an kalera irteten eta korrika egin edo txaloak jo zenituztenok, ...

Beste bi urtean ez dugu Korrikarik izango, euskalakari, ostera, egunero izan behar dugu. Euskara "maitatzeko" ez dugu inoren beharrik, ikasteko eta aritzeko, ordea, hementxe gaituzue.

AEK euskaltegia

Jon Larrañagari

Lehenengo eta behin, zure autoari salaketa eta ez isuna jarri zitzaionean, zeurea zegoen bakarrik gaizki inguru horretan.

Udaltzaingoak legea aplikatzerakoan irizpide batzuk jartzen ditu; bestela, ezinezkoa izango litzateke herriko kale guztietako autoak zaintzea. Irizpideetan hainbat kontu hartzen dira aintzat: eragiten duen kaltea, ordua, tokia... Gainera, ez dizkizugu zuri hemen azalduko Udaltzaingoak egiten dituen lanak. Bide batez, zure autoari salaketa jarri zitzaionean, zuk zeuk onartzen duzun moduan, zebrabidean zenuen aparkatuta, eta ordu horretan (8:30-9:00ak bitartean) Herri Eskola-

ko haurrak pasatzen dira bertatik. Baina, noski, zuk zeure eskubideak dituzunez, bost axola haur guzti horiek zugatik errepidetik joan behar izana. Zer da zuretzat haur guzti horien segurtasuna zeure eskubideen aurrean ba!. Zergatik urratuko dituzu zeure eskubideak oinez pare bat minutura dagoen "tontodromo" aparkalekuan autoa uzten. Joan daitezela haurrak errepidetik! Baduzu adina eskubideak eta betebeharrak lotuta doazela jakiteko.

Udaltzainek diru publikotik kobratzen dutela diozunean zer nahi duzu adierazi, zeure zergetatik kobratzen dugula? Ba bai, eta epaileek, maisuek, suhiltzaileek, Osakidetzako langileek... Joan zaitezke epaileengana salaketa garestia dela esatera eta, haiek ere zure menpekoak direnez, jaramon egitera behartzera; ea zer erantzuten dituzten. Ez ahaztu goian aipatutako guztiek ere zergak ordaintzen dituztela zure Osakidetzako gastuak, zure seme-alaben eskolaratzeak (ez dakigu badituzun edo ez) etab. ordaintzeko. Zure zergetatik zenbat diru dela uste duzu udaltzainentzat? Urtean euro bat eskas. Horrek horrela boterea ematen dizu udaltzainen gain? Ez zara makala!

Zure eskubidea da sinadura bilketa antolatzeari garestiegi iruditu zitzaizulako, baina Espainiako Gobernuari zuzendu beharko diozu, zeren diru kopuru hori berak jarri zuen Estatu osorako, 2010eko maiatzetik aurrera. Beraz, kopuruak ez du zerikusirik Elgoibarrekin, Madrilekin baizik.

Amaitzeko, segi zure eskubideekin eta ez zure betebeharrekin. Zer axola horretarako besteen eskubideak zapaltzea? Zu, gainera, oso trebea zara autoa gaizki aparkatzen; edonola uzten duzu herriko edozein bazterretan, behin eta berriz, eta, berez, astero egon beharko zenuke salaketak jasotzen. Ez zaude kexatzeko moduan. Gainera, bistakoa da oso solidarioa zarela, zure ardurak bakarrik beste autoek ere salaketa jasotzea izan baitzen, eta ez arazoa konpontzea.

Eskerrak elgoibartar gehienek ez dutela zuk bezala aparkatzen; bestela, ezin izango genuke beste ezertara dedikatu.

Udaltzainburua



Jose Luis
Azpillaga

Pasatu da Korrika.
Beti bezain alai eta koloretsu pasatu ere. Zorionak. Asko gustatu zait aurtengo Korrikaren leloa: Maitatu, ikasi, ari...euskalakari! Nahiz eta Xuxenek gorritz azpimarratzen didan, gure berba kuttunen hiztegian lekutxoia egina du dagoeneko euskalakari hitzak.

Hala ere, denok dakigu Korrika euskararen aldeko festa bat dela, batik bat, eta festa horretan parte hartzeak ez duela bermatzen, ezinbestean, euskararen aldeko jarrera aktiboa. Hor daude, esaterako, Olatzagak *BERRIA* egunkarian Zakilixuten ahotan jarritako hitzak: "Oinak mugituz, baina...mihia geldirik? Orduan bai, bide bidezkoik... EUSKARAREKIN... **BAT**". Martxelo Otamendik ere Korrikaren 13. ekitaldiaren amaierako hitzaldia berak egin behar, eta, bukaeran, gaztelaniaz eta frantsesez, honela esan ei zuen: "Ondo dago korrika egitea, baina ez ahaztu: bihar goizean denok euskara ikastera". Alegia, antxintxika egitea ez dela nahikoa euskalakari izateko.

"Gure berba kuttunen hiztegian lekutxoia egina du dagoeneko euskalakari hitzak"

Eta orain, Aste Santuko oporrak bukatzeaz ditugula, euskaltegioko ikasleak ditut gogoan. Laster azterketa-garaia dator. Maiatzeko bigarren asteburuan proba idatziak izango dira, eta azterketa egin behar dutenak, honezkerok, urduritzen hasita egongo dira. Animo denoi! Izan ere, ez da harrizkerokoa azterketa kontu hauekin urduri jartzea. Eta hori bakarrik baliatuz! Nago azken urteotan euskaltegiok murgilduta gauden azterketa-dinamika honek guztiz baldintzatzen duela gure ikas- eta irakas-jarduerak. Azken hilabeteotan ez dugu besterik egin talde batzuetan: azterketetako ariketak, idazlanak... Eta horrela ez da erraza inor euskalakari bihurtzea, ezta?



Amaia
Larrañaga

Epa, J.Luis.

Bai, neu ere euskalakari hiztegia aberastu digulakoan nago, baina definitzeko erabilgaitako hiru aditzetatik bigarrenak eta, batez ere, hirugarrenak kezkatzen naute, ez ostera lehenengoak. Izan ere "maitatu" ia denek egiten dute, eta horren erakusgarri, hilaren 13an, iluntzean, Elgoibarko kaleetako jendetza Korrikari "maitasuna" adierazte aldeira. Zirrargarria, denoi gustatzen zaigulako "maite" gaituztela entzutea edo horretaz ohartzea.

Bigarrenak, alegia, ikasteak zer esan nahi duen ederki dakigu, eta ikaste horri ekiten diotenetako zenbat izaten diren euskalakari ere bai. Baina badira hiru aditzak martxan jarri dituztenak ere, ezta? eta horretzek ematen digu indarra, batez ere irakasleok, harro, halako euskaldun berria dela diogunean eta eredutzat jartzen dugunean, euskaraz bizi delako. Honen ifrentzua, ostera, "betiko euskaldunak" ditugu, alegia, ez erabiltzearen ondorioz erdi galdu dutenak, eta, gehienak, ikasteko asmorik gabekoak.

Hirugarrena, *aritzea edo berba egitea*, nahiz eta horrenbesteko "maitasuna" erakutsi, gaixorik dago, eta hau ezin dut ulertu; hau da, norbait edo zerbait "maite" badugu, zer dela-eta bazterten dugu? Zergatik ez dugu "erabiltzen"? 13an zenbatek jardun zuen euskaraz? Eta, zuk diozu euskaltegiaren, oro har, bizi dugun titulu goseak ere ez

"Zergatik ez dugu 'erabiltzen'? 13an zenbatek jardun zuen euskaraz?"

digula laguntzen euskalakari bihurtzeko, baina guk ahaleginak eta bi egiten jarraituko dugu *hirugarren aditz* horri hel diezaizoten, zeren eta horrek bidea oso samurtzen baitie.

Jakina, guk ahalegin hori guregana jotzen dutenekin egingo dugu, eta ea lortzen dugun euskalakarietako "betikoak" M.Markezek dioen *maita nazazu gutxiago, erabil nazazu gehiago* -ri kateatzea.

ESKERTZA

FELI ERRASTI VILLAR



2011ko apirilaren 13an hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Datorren urteko udan hasiko dituzte Pilar ikastetxean adinekoentzako egoitza egiteko obrak

150 lagunentzako zentroa izango da, eta 2014. urte amaierarako martxan egongo da

Udal arduradunen aurreikuspenen arabera, 2012ko uda aldean hasiko dituzte Pilar ikastetxea egon zen gunean adinekoentzako egoitza egiteko lanak, eta 2014. urte amaierarako erabiltzeko prest egongo dela aurreratu dute. Aste honetan bertan onartu du hitzarmen hori Osoko Bilkurak, eta sei hilabeteko epean gutxi gorabehera aterako du proiektua lehiaketara Foru Aldundiak. Lau hilabete inguru hartuko dituzte proiektuak aztertzeko eta obrak egingo dituen enpresa aukeratzeko.

Foru Aldundiko Gizarte Politikarako Departamentuak eta Elgoibarko Udalak lortu duten akordioaren arabera, Foru Aldundiak egoitza zentro bat eraiki, ekipatu eta kudeatu ahal izango du Elgoibarko Udalak eman dion herri jabetzako partzela batean, Pilar ikastetxea egon zen gunean, hain zuzen ere. Partzela horren lur azpian, aparkalekua eta jarduera ekonomikoetarako gunea izango ditu Elgoibarko Udalak.

Hiru eraikin

Proiektuaren arabera, hiru eraikin izango ditu egoitza berriak. Horietako bi zentro gerontologikoak hartuko ditu, eta hirugarrena buruko gaixotasunak dituzten pertsonentzako eta Eguneko Zentroa egiteko erabiliko dute. Lehenengo eraikinak beheko solairuaz gain, beste sei izango ditu; bigarrenak, beheko solairua eta beste lau, eta azkenak, beheko solairua eta beste hiru. Adinekoentzako zentroak 120 logela eta 150 lagunentzako lekua izango ditu, eta buruko gaixotasuna dutenentzako eraikinak 24 logela edukiko ditu.

15.237.943 euroko aurrekontua

Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Elgoibarko Udalaren arteko hitzarmenean jasota dagoenez, hiru eraikin horiek eraikitzeko



10.404.720 euroko erabiliko ditu Foru Aldundiak. Bestalde, aparkalekuak eta jarduera ekonomikoetarako gunea eraikitzearen ardurak ekonomikoa Elgoibarko Udalarena izango da, eta lan horiek 3.305.366 euroko aurrekontua izango dutela aurreikusi dute. Azkenik, urbanizazio lanetarako 1.527.857 euroko aurrekontua jasotzen da hitzarmenean, eta hori, beharren arabera, ordainduko dute Aldundiak eta Udalak. Hortaz, guztira, 15.237.943 euroko (BEZA kanpo) aurrekontua izango du gune berriak.

Lurrazpiko gunea, eskaeren arabera

Elgoibarko Udalak hiru solairu izango ditu egoitzaren azpian, lurrazpian, hain zuzen ere. Hasierako aurreikuspenaren arabera, bi solairu aparkalekuak egiteko erabiliko dituzte, eta hirugarrena jarduera ekonomikoetarako. Guztira, 134 aparkaleku egiteko asmoa erakutsi du Udalak, baina Alfredo Etxeberria alkateak argi utzi du hori aurreikuspena besterik ez dela. Sei hilabeteko epea hartuko dute gune horretan egingo dutena ondo aztertzeko. Foru Aldundiak proiektua lehiaketara ateratzen duenerako erabakita eduki beharko dute.

Debarreneko emakumeen topaketa interkulturala antolatu dute maiatzaren 7rako

Debarreneko emakumeen lehen topaketa interkulturala egingo dute Elgoibarren, maiatzaren 7an. Ekitaldia Debegesak antolatu du, Eusko Jaurlaritzarekin batera, eta eskualdeko Udaletak berdintasun eta immigrazio agenteekin elkarlanean. 9:30etik 13:30era egingo dira jardunaldiak, Elgoibarko Kultur Etxean. Debegesak

esandakoaren arabera, etorkinen harri hobetzea, integrazio sozialari laguntzea eta elkarbizitza sustatzea dira topaketaren helburuak.

Jardunaldia bi zatitan banatu dute. Lehenengo zatian, emakume etorkinek, bertako emakumeek eta jatorri mistoa duten emakumeek osatutako lau elkartetako kideek hitz

egingo dute, euren helburuak eta ekintza esparruak azaltzeko. Bigarren zatian, berriz, kafe tertulia egingo dute *Emakumeen bilgunez goeto* lelopean. Ekitaldian parte hartzeko izena eman behar da, 943 820 110 (Ainara Garcia) telefonora deituta edo balioak@debegesa.com helbidera idatziz.

Datua **8,73**

Debabarreneko Nagusien Kontseiluak Mendaroko Ospitaleko itxaron zerrendak iker-tu ditu, eta 2011ko lehen hiruhilekoan egoerak hobera egin duela jakinarazi du. Izan ere, 8,73 egunetan murriztu da ebakuntza kirurgikoak egiteko itxaron zerrenda. Gaur egun, beraz, 44,72 egun itxaron behar dira batezbeste Mendaroko Ospitalean ebakuntza kirurgikoak egiteko. Datu hori Osakidetzako sareko gainerako ospitaleetako itxaron epearen batez-besteakoaren (45,83) azpitik dago. Era berean, mediku espezialisten kontsultarako itxaron beharreko denbora 3,97 egunetan murriztu da, eta gaur egun, 9,7 egun itxaron behar dira. Debabarreneko Nagusien Kontseiluak txalotu egin du Ospitalea, zerbitzua hobetzeko hartutako neurriengatik, baina oraindik hobetu beharrekoak badirela gaineratu dute. Besteak beste, aparkalekua handitzeko, mamografiak egiteko eta ospitalea bera handitzeko eskatu diete arduradunei.

Mendaroko Ospitaleko zuzendaritzak, bestalde, barkamena eskatu du ospitalean egiten ari diren obrek sortu ditzaketen eragozpenengatik. Klimatizazio sistema hobetzeko lanak egiten dihardute, eta lan horiek aparkalekuetan ere eragingo dutenez, garraio publikoa erabiltzeko gomendioa egin diete erabiltzaileei.

Irudia **Aste Santuko ospakizunak**



Urtero bezala, eliztiarren hainbat ekitaldi ospatu dituzte Aste Santuan. Pazko Igan-deko irudiak dira goikoak. Kristo berpiztuaren eta Maria ama birjinaren irudiak atera zituzten prozesioan. Euria eta eguraldi bustia egin zuen arren, herritar asko bildu ziren San Bartolome parrokiako arkupeetan. Argazkiak: F. Morquecho.

Hauteskundeetan mahaian egoteko zozketa egin dute

Maiatzaren 22an hauteskunde mahaietan egon beharreko herritarren zerrenda osatu dute, bai Elgoibarren eta baita Mendaron ere. Zerrenda horiek www.elgoibarren.net atarian kontsultatu daitezke. Era berean, posta bidez bozkatzeko epea ere zabalik dago. Informazio gehiago udaletxean eskuratu daiteke.

Saharako umeak etxean hartzeko kanpaina

Saharako umeak udan etxean hartzeko kanpaina martxan da. Programa honetan parte hartu nahi dutenek Gizarte eta Ongizate Sailarekin harremanetan jarri beharko dute, maiatzaren 10a baino lehen.

50 urtekoen kinto bazkaria maiatzaren 21ean

Aurten 50 urte egingo dituzten elgoibartarrek kinto bazkaria egingo dute maiatzaren 21ean, Sigma jate-txean. Interesatuak 85 euro ordaindu beharko dituzte, maiatzaren 4a baino lehen, Euskadiko Kutzako (Caja Laboral) kontu korrante zenbaki honetan: 3035 0007 28 0071121811.

1956an jaiotako kinto bazkaria

1956an jaiotako elgoibartarrek kinto bazkaria egingo dute ekainaren 11n, Harzubi jatetxean. Interesatuak 60 euro ordaindu beharko dituzte, Kutzako kontu korrante honetan. 2101 0036 69 0127817013.

1949an jaiotako kinto bazkaria

1949an jaiotako elgoibartarrek kinto bazkaria egingo dute ekainaren 4an, Azpeitiko Kiruri jatetxean. Interesatuak 70 euro ordaindu beharko dituzte maiatzaren 26a aurretik, ondorengo kontu korrante zenbakian: 2100 4168 77 2100091490. 12:00etan batuko dira guztiak Plaza Handian erretratua ateratzeko.

Udal ordezkariak aukeratzeko sasoia



Orain lau urteko hauteskundeetan bezala, BARRENEK atal berezi bat eskainiko die aurten maiatzaren 22an egitekoak diren Udal eta Foru Hauteskunderi. Elgoibarko eta Mendaroko alkategai guztiei egingo zaie lekua aldizkarian, eta galdera sorta jakin bati erantzungo diete guztiek. Alderdi guztiek aukera berdinak izan ditzaten, BARRENEK aurrez bidali zizkien galderak alderdietako zerrendaburuei, eta epe jakin batean erantzuteko konpromisoa hartu zuten haiek. Era berean, eta Elgoibarko zerrendaburuen kasuan, lau gai eman zitzaizkien, gai horien inguruan librean erantzuteko. Honakoak dira lau gai horiek: hirigintza, euskara, gizarte politikak eta gaztedia.

Datorren asteko alean hasiko gara elkarrizketak argitaratzen. Astero, alkategaiek hiru-lau galderari emandako erantzunak bilduko ditugu.

Elgoibarko alkategaiak



ALFREDO ETXEBERRIA
EAJ



OVIDIO CAMPELLO
PSE-EE



JOSE LUIS IBARZABAL
BILDU



JOANES RODRIGUEZ
ARALAR



JUAN SANCHEZ VALLEJO
EZKER BATUAK-BERDEAK



FRANCISCO JAVIER NUÑEZ
PP

Mendaroko alkategaiak



IRUNE BERASALUZE
EAJ



SONIA GARCIA
BILDU



JOSE ANTONIO RODRIGUEZ
PSE-EE



ANTONIO SAYAGO
PP



Euzko Alderdi Jeltzalea (EAJ)

1. Alfredo Etxeberria Murua.
2. Ricardo Garate Zubiaurre.
3. Amaia Txurruka Oquina.
4. Eneko Etxeberria Arizmendi.
5. Bittori Zabala Fernandez.
6. Ane Beitia Arriola.
7. Ioseba Arrizabalaga Mendikute.
8. Encarnacion Migales Ordoñez.
9. Inga Segurola Soraluze.
10. Iñigo Iturbe Ortiz de Zarate.
11. Belen Elorza Arrieta.
12. Alberto Iriondo Gonzalez.
13. Iñaki Iriondo Elustondo.
14. Eloisa Zubiaurre Ansola.
15. Juan Carlos Arrieta Oregi.
16. Carmen Gemma Monreal Lopez.
17. Aritz Arrizabalaga Aranzabal.

Ordezkoak:

1. Gotzon Arrieta Vallejo.
2. Susana Etxabe Telleria.
3. Agurtzane Arriola Agirre.



Bildu (EA - Alternatiba - independenteak)

1. Jose Luis Ibarzabal Egibar.
2. Jon Peli Uriguen Ansola.
3. Iñigo Cearsolo Aranberri.
4. Maria Jose Garmendia Txapartegi.
5. Ainhoa Mendibil Artetxe.
6. Ander Soraluze Juaristi.
7. Joseba Elustondo Agirregomezkorta.
8. Miren Arrate Arrieta Jauregi.
9. Maite Elizburu Astigarraga.
10. Javier Lazkano Arrillaga.
11. Argiñe Rubio Zubiaurre.
12. Juan Ignacio Ausin Santamaria.
13. Iñaxio Garmendia Aizpuru.
14. Itziar Goñi Gabilondo.
15. Amaia Astigarraga Astigarraga.
16. Aitor Gabilondo Garate.
17. Karmele Gabilondo Echaniz.

Ordezkoak:

1. Ferrn Aceberria
2. Alfonso Guillo Gonzalez.
3. Gloria Garate Cagigas.



PP

1. Francisco Javier Nuñez Alvarez.
2. Jose Eduardo Jul Cruzado.
3. Victoria Pilar Garcia Vaquero.
4. Josefa San Juan Garcia.
5. Maria del Carmen Rodriguez del Valle Alvarez.
6. Ernesto Enfedaque Villagrasa.
7. Guillermo Garcia-Romeu Dancausa.
8. Maria Julia Caballero Merino.
9. Maria del Pilar Rodicio Lopez.
10. Elena Caballero Bello.
11. Ivan Garcia Cantero.
12. Teodoro Garcia Arroyo.
13. Maria Pilar Lopez-Malla Garcia.
14. Maria Eugenia Fernandez Franco.
15. Maria Sonsoles De Frias Sanchez.
16. Angel Flores Diaz.
17. Petra Maria Llopis Aulet.

Ordezkoak:

1. Jose Carril Herrero.



PSE-EE

1. Jaime Ovidio Campello Teijido.
2. Fernando Suarez Varela.
3. Nerea Alustiza Alonso.
4. Francisco Luis Egea Garcia.
5. Maria Jose Otaño Martinez de Arenaza.
6. Angel Dionisio Francisco Cabezuelo Segundo.
7. Juan Jose Bastarrika Garate.
8. Isabel Vazquez Linares.
9. Maria Soledad Erauskin Etxenike.
10. Jose Carlos Rodriguez Martinez.
11. Maria Amalia Sanchez Ortega.
12. Joseba Fernandez Diaz.
13. Manuel Fernandez Berdasco.
14. Julian Garmendia Aizpitarate.
15. Gloria Piedad Garcia Ceballos.
16. Maria Marta Otaño Martinez de Arenaza.
17. Manuel Jauregi Arriola.



Aralar (ARALAR)

1. Joanes Rodriguez Soraluze.
2. Izaskun Soraluze Lizundia.
3. Joseba Osoro Iturbe.
4. Asier Iturriagaetxebarria Royo.
5. Izaro Etxegibel Soraluze. (Independiente)
6. Juan Rodriguez Poza.
7. Tomas Trifol Madraza.
8. Maria Aranzazu Rodriguez Esnaola. (Independiente)
9. Juan Jose Roldan Merino. (Independiente)
10. Maria Asuncion Aranda Nuñez. (Independiente)
11. Mikel Etxaniz Etxeberria. (Independiente)
12. Carmen Gillo Manresa. (Independiente)
13. Maria Carmen Otegi Arizmendi. (Independiente)
14. Iñigo Ibiriku Anguera. (Independiente)
15. Maria Jose Deogracias Horriola.
16. Jose Francisco Urteaga Elorza. (Independiente)
17. Elisabete Osoro Iturbe. (Independiente)



Ezker Batua-Berdeak (EB-B)

1. Juan Sanchez Vallejo.
2. Arkaitz Gonzalez Galiot.
3. Emiliano Sierra Pinto "Paco".
4. M.ª Jesus Puertas Vicuña.
5. Rosalia Lopez Valdivielso.
6. Manuel Polo Martinez-Alcocer.
7. Candido Uranga Arakstain.
8. M.ª Concepcion Gutierrez Rodrigo.
9. Juan Mari Tomasena Alzuri.
10. M.ª Teresa Gallego Vicente.
11. Benigno Mellid Garcia.
12. M.ª Dolores Santos Tijero.
13. Clemente De Pablos Estevez.
14. Myrian Crespo Bringas.
15. Vicente Garcia Herrador.
16. M.ª Dolores Martin Dominguez.
17. Jorge Alonso Alonso.



Euzko Alderdi Jeltzalea (EAJ)

1. Iruñe Berasaluze Lazkano
 2. D. Felipe Castro Gomez (Independiente)
 3. M.^a Angeles Olazabal Muguruza
 4. Alberto Orbegozo Lazarobaster (Independentea)
 5. Antonio Gomez Vargas
 6. Isabel Arrillaga Egaña (Independentea)
 7. Jose Ignacio Ulazia Egaña (Independentea)
 8. Iñaki Arregi Uria (Independentea)
 9. Alex Aranberri Babarro Ordezkoak
1. Ramon Alberdi Artetxe
 2. Juan Loiola Bergaretxe
 3. Juan Antonio Agirretxea Cereza



Bildu (EA - Alternatiba - independenteak)

1. Sonia Garcia Raposo
 2. Borja Rodriguez Barreras
 3. Aitor Agirrebeña Alberdi
 4. Eneko Ulazia Manterola
 5. Maria Jose Lopez Sendon
 6. Jose Maria Zubierremereria Olañeta
 7. Maitane Mendikute Zulaika
 8. Luis Salgado Gomez
 9. Maria Amparo Txurruka Iriondo Ordezkoa
1. Xeber Loiola Mallabiabarrena
 2. Javier Leira Rodriguez
 3. Andoni Zulaika Ulazia



PSE-EE

1. Jose Antonio Rodriguez Rodriguez
2. Francisco Linares Blasco
3. Jose Antonio Sanchez Gomez
4. Ana Isabel German Castaño
5. Victor Manuel Martin Iglesias
6. Leonor Matias Curiel
7. Fabian Nieto Usatorres
8. Miguel Angel Giganto Alvarez
9. Andres Morales Del Rio



PP

1. Antonio Sayago Gonzalez
2. Marta Elena Lopez Santos
3. Diego Jesus Martinez Garcia
4. Celia Maria Gomez Ruano
5. Vicente Villalon Villalon
6. Julia Maria Garcia Carazo
7. Juan Ramon Salazar De La Aldea
8. Maria del Carmen Alfonso Casado
9. Carlos Alejandro Manriquez Zorilla



Hauteskundeek gaineko hiru orri hauek inprentara bidali genituenean, asteazken goizean, artean ez genekien Bildu koalizioak udal hauteskundeetan izateko aukerarik izango zuen edo ez. Izan ere, PPK Bilduren zerrenda guztiak inpugnatzeko eskatua zuen. Martitzen goizean, koalizio gisa Bildu ezin dela legez kanpo utzi esan zuen Francisco Camaño Espainiako Justizia ministroak, Alderdien Legeak alderdi bat inpugnatzea ahalbidetzen duelako soilik. Egun berean, Espainiako Estatuaren abokatuak eta Fiskaltzak Bilduren zerrenda guztiak inpugnatuko dituztela jakinarazi zuten. Bi arrazoi eman zituzten: koalizioa ETaren estrategian dagoela eta zerrendakide batzuek Batasuna legez kanpoko alderdi politikoarekin harremanak izan zituztela. Azken batean, Alfredo Perez Rubalcaba Barne ministroak ordu batzuk lehenago esandako gauza bera.



% 100erainoko FINANTZAKETA ESKAINTZEN DUGU AZKEN ETXEBIZITZAK MENDARON

- ◆ 2 eta 3 logelako pisuak eta duplexak
- ◆ Material bikaineko etxebizitzak
- ◆ Horma-armairuak
- ◆ Sukaldea hornitua
- ◆ Abantaila fiskalak: B.E.Z.-ik gabe (OTZ %2,5 edo %4)
- ◆ Prezioak: 193.300 eurotik aurrera (prezio barnean etxebizitza, trastelekua eta garajea)

**Gure etxebizitzetako bat erosten baduzu, logela nagusiko altzariak
oparituko dizkizugu edota txeke opari bat bestela**

Eska ezazu etxebizitzeari buruzko informazioa:

Gure telefono zenbakian: 943 249 516

Web orrian: www.aiksa.com

edota gure bulegoan: Easo kalea 8, 20006 Donostia



Erretratu zaharra



1961

Aste honetako erretratu zaharra Maribel Bastidak bidali du BARRENEko erredakziora. 1961. urteko erretratua da, eta Elgoibarko ferian aterata dago. Garai hartan arrakasta handia izaten zuen feriak, eta jende asko etortzen zen. Erretratuan azaltzen diren bi gizon horiek mendarorak dira. Ezkerrekoa, Alkorta baserriko Jose Urain (†) da, eta eskumakoa, Atxuri baserriko Jose Bastida (†).



ESKERTZA

ESPERANZA UNCILLA AGUIRRE

*Maitte, maitte, maittia
erakutsitakoa
erakutsiko dogulako
muxu bat*



2011ko apirilaren 13an hil zen. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.

Bilduren zerrenda guztiak inpregnatu ditu Espainiako Estatuaren Abokatuak.

Bilduk maiatzaren 22ko hauteskundeetan egon behar duela uste duzu?



Hirune Betelu 42 urte,
Ingurumen kimika teknikaria

Egon behar du, bai. Baina batzuk erabakitzen dute zein egon daitekeen eta zein ez, eta kasu honetan, nahiko ezkorra naiz. Ez zaie komeni Bildu aurkeztea. ETA delako horrek diru asko generatzen du oraindik, eta horren atzean negozio handia dago.



Jose Mari Gurrutxaga
69 urte, jubilatua

Bai, dudarik gabe. Espainiako Gobernua arduraz hartu behar luke ekonomia edo langabezia bezalako gaietan, eta ez horrenbeste Bilduren kontuan. Egia esanda, beldur naiz, eta ez dakit utziko dieten aurkezten. Dena den, horrek ezker abertzalea gehiago indartuko du.



Ikuska Regil
42 urte, irakaslea

Bai. Herritar guztion eskubidea da hauteskundeetan bozkatzea eta iritzia ematea, beraz, Bilduk egon behar du hauteskundeetan. Madril aldetik ezekoia etorriko delakoan nago, susmo txarra hartzen diot egoera honi. Ondoren, gorago joateko asmoa baldin badago, ez dakit zer pasako den.



Gotzone Aierdi
38 urte, langabetua

Bai, besteak bezalaxe. Herritarren pentsakera bat da hori eta hauteskundeetan egon behar dute. Aukera behintzat eman egin behar zaie. Ni itzaropentsu nago, eta uste dut erantzun positiboa etorriko dela. Saltsa handia sortuko da, baina hala izan behar duelakoan nago.


■ SEMAFOROA



Autoak gaizki aparkatuta egoten dira Pista Beltzean: "Pista Beltzeko hainbat auto gaizki aparkatuta egoten dira, eta traba handia egiten dute. Eskaileren parean lagatzen dute batzuek autoa, eta umearen aulkiarekin edo erosketen karroarekin pasatu ezinda ibiltzen gara. Eskertuko genuke eskaileren aurrean autorik ez aparkatzea".



Merkatu Plaza azpiko aldapa kartoi eta paperez beteta lagatzen dute umeeak: "Ume askok Merkatu Plaza azpian dagoen edukiontzietatik kartoiak hartu eta ingurune guztia zinkieriaz beteta lagatzen dute. Batetik, kartoiak edukiontzian sartzeko eskatu nahi dugu, eta, bestetik, gurasoei umek apur bat zaintzeko. Eskerrik asko".



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:
barren@elgibarkoizarra.com 943 744 112

Bihar Otegiren alde Elgoibarren egingo den manifestazio nazionalera deitu du haren aldeko plataformak

17:30ean abiatuko da manifestazioa Plaza Handitik

Arnaldo Otegi libre uzteko eskatzeko manifestazio nazionala antolatu du estrainezkoz haren aldeko herri plataformak biharko. *Euskal Herriak politika egiteko eskubidea. Arnaldo askatu, politika askatu* lelopean egingo da manifestazioa, eta 17:30ean abiatuko da Plaza Handitik. Otegi preso badiute arrazoi politikoengatik dela nabarmendu zuten deitzaileek manifestaziora deitzeko emandako prentsurrekoan, eta Euskal Herrian politika egiteko eskubidea aldarrikatu zuten beste behin ere. Manifestaziora autoz eta autobusez iristen direnentzako aparkalekuak izango direla aurreratu zuten antolatzaileek, baina, hala ere, ahal den neurrian garraio publikoa erabiltzeko eskatu zieten kanpotik Elgoibarrera etorriko direnei.

“Herri honen etorkizuna oztopatzea xedetzat hartua dutenek inolako arrazoirik gabe daukate preso Arnaldo Otegi”. Hala zioen hitzez hitz Arnaldo askatu, politika askatu herri ekimenak manifestaziora deitzeko espreski idatzitako oharra. Asier Zengotita plataformako kideak irakurri zuen idatzia, plataformako hainbat kide eta Arnaldo Otegiren abokatu Jone Goirizelaia ondoan zituela. Otegi preso duten 19 hilabeteetan, Arnaldok berak hasitako bideari jarraituz, “hainbat aldaketa azpimarragarri” gertatu direla nabarmendu zuen, eta, besteak beste, irtenbide demokratiko eta baketsuaren alde egin den “jauzia” aipatu zuen. “Horretan Arnaldoren parte-hartzea ezinbestekoa izan denik ezin ukatu. Horrela ulertu du euskal alderdi politikoaren artean gehiengo zabalak, PSOEK barne. Baita sindikatuek eta hainbat arlotan lanean diharduten gizarte eragileek ere”, esan zuen horren harira.

Ezker abertzaleko bozeramaile izandakoaren aldeko kanpainak izan duen oihartzun handia ere ahotan izan zuten plataformako kideek, eta baita Otegi berak emandako pausok izan duten eragina ere. Bruselako akordioa, Westminsterreko parlamentura Brian Currin eta haren taldeak eraman zuten adierazpena, eta Kataluniatik eta beste leku askotatik jasotako atxikimenduak jarri zituzten horren adibidetzat, eta horri guztiari ETAk iragarritako su-eten “iraunkor eta egiaztagarria” eta haren ondoren etorritako Gernikako akordioa gehitu behar zaizkiola esan zuten. Egoera berri horren itxaropen ikurra Arnaldo Otegi bera dela uste dute plataformako kideek, baina harekin batera atxilotu zituztenak ere gogoan izan zituzten prentsurrekoan: Sonia Jacinto, Miren Zabaleta eta Arkaitz Rodriguez.

Babes zabala

Arnaldo Otegi libre lagatzeko eskatzeko, sinadurak biltzeri ekin diote plataformakoek, eta dagoeneko 3.000 atxikimendu baino gehiago batu dituzte, Euskal Herrikoak zein atzerrikoak [Atxikimenduak honako webgunean eman daitezke: www.arnaldotegi.com]. Aurrez, argazki kanpaina bat ere egin zuten, eta orduan ere hainbat lagun ezagunek bat egin zuten ekimenarekin:



Argazkia: Aitor

Manifestaziora deitzeko joan zen astean eman zuten prentsurrekoko irudia. Mahaian, Jone Goirizelaia eta Asier Zengotita.

Gerry Adams, Karmelo Landa, Jose Mari Arrate, Fermin Muguruza, Martxelo Otamendi, Floren Aoiz, Joseba Zulaika, Rafa Larreina, Oskar Matute, Jone Goirizelaia, Fito Rodriguez, Uxue Alberdi, Ramon Labaien, Jose Luis Korta, Hasier Etxeberria, Aitor Mendiluze edota Jose Luis Alvarez Enparantza Txillardegik.

Otegi 2009. urteko urritik dago kartzelan –lehen ere egonda–. Batasunaren Mahai Nazionala berrosatu nahi zuelakoan atzeman zuten 2009ko urriaren 13an, hainbat kideekin batera. ETAren esanetara aritzea leporatu zieten.

Jasone Osororen 'Ezekiel' eta Uxue Alberdiren 'Aulki jokoak' liburuak saritu dituzte Juul hauteskunde literarioetan

Euskal Herriko 16.035 ikaslek hartu dute parte hauteskundeetan

Ikastolen elkarteak Juul hauteskunde literarioak egin ditu, haur eta gazte literaturan euskaraz argitaratutako liburu gustukoena zein diren jakiteko, eta aukeratuen artean, bi idazle elgoibartarrek idatzitako liburuak daude: Jasone Osororen *Ezekiel* liburua izan da 12-16 (DBH) urteko ikasleen artean gustukoena, eta Uxue Alberdiren *Aulki Jokoak* hirugarren gustukoena, 16-18 (Batxilergoa) urteko ikasleen artean. Aurten go hauteskundeetan 16.035 boto eman dituzte ikasleek.



Elgoibarko Izarra kultur elkartea lehendakaririk gabe

Elgoibarko Izarrako lehendakariak, Ander Soraluzek, kargua laga du, maiatzaren 22ko Udal Hauteskundeetan aurkeztu ahal izateko. "Elgoibarko Izarraren autonomiaren eta irekitasun ideologikoaren mesedetan hartu dut erabakia", adierazi du. Anderrek zazpi urte eman ditu elkartearen Zuzendaritza Batzordean, eta azken hiruretan bete du lehendakari kargua. Elgoibarko Izarrak adierazi duenez, Anderrek lan "asko eta ona" egin du elkartearen mesedetan, eta eskerrik zintzoenak eman dizkio. Elkartetik gehitu dutenez, ahal duten azkarren beteko dute Anderrek lagatako hutsunea



Mendaroko Ikastolako patioa estaltzeko proiektuak herritarrei aurkeztuko dizkiete

Mendaroko Udalak Ikastolako patioa estaltzeko ideiak bildu ditu, eta orain herritarrentzako jarriko dituzte ikusgai, haiek ere iritzia eman dezaten. Udaletik adierazi dutenez, pleguetan araututa dagoen hamar eguneko epea ezin izango dute bete, lehen ere ideiak biltzeko epea luzatu egin behar izan dutelako. Astelehenetik ostiralera ikusi ahal izango dira proiektuok udaletxean, 11:00etatik 13:00etara eta 17:30etik 19:00etara. Ekarpenak telefonoz jasotzeko aukera ere eman du Udalak.

I. URTEURRENA

PEDRO ZUBIZARRETA ASTIGARRAGA

2010eko apirilaren 23an hil zen, 80 urte zituela.

Haren oroimenez II. urteurreneko meza izango da, zapatuan, apirilak 30, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian.

Joango zaretanoi eskerrak aldeztu aurretik.



II. URTEURRENA

IGNACIO GARATE GOIHARTZUN

2009ko apirilaren 30ean hil zen, 88 urte zituela.

Haren oroimenez II. urteurreneko meza izango da, zapatuan, apirilak 30, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian.

Joango zaretanoi eskerrak aldeztu aurretik.



Alkorta eskubaloi taldeak mailaz igotzeko partida erabakigarria jokatuko du bihar kiroldegian

Lauko taldeak laugarren postuan amaitu du Euskadiko Eskubaloi Txapelketa

Alkorta, senior mutilen taldeak, mailaz igotzeko partida garrantzitsua jokatuko du bihar Olaizaga kiroldegian, Lezama Demoliciones taldearen kontra. Alkorta hirugarren dago igotzeko faseko sailkapenean, eta Lezamako taldea, bigarren. Hortaz, mailaz igotzeko ezinbestekoa dute bihar irabaztea. Partida 18:00etan hasiko da, eta Klubeko arduradunek zaleen babesa eskatu dute. Bihar kiroldegira joan eta Alkortari animoak emateko eskatu dute.

Lauko, laugarren Euskadiko Eskubaloi Txapelketan

Sanloko Lauko taldeak Euskadiko Eskubaloi Txapelketa jokatu zuen Ermuan apirilaren 15etik 17ra bitartean, eta laugarren egin zuen talde elgoibartarrak.



Lehenengo partida hiru goleko aldeaz galdu zuten Zarauzko Aiala taldearen kontra; bigarrenengoan, berriz, zazpi gol gehiago sartu zituen Ermuko taldeak, eta azken norgehiagokan hiru goleko aldea

atera zion Barakaldok. Ermuko taldeak irabazi zuen txapelketa, Zarauzko Aiala izan zen bigarren, eta Barakaldo hirugarren. Elgoibartarrak azken postuan geratu ziren.

Hirugarren mailari eusteko hil ala biziko partida jokatuko du Haundik domekan, Mintxetan, Laudioaren kontra



Argazkia: Aitor

Hirugarren mailan jarraitzeko ezinbestekoa du Haundik garaipena. Eibar B eta Durango taldeen kontra galdu ondoren, Laudioaren kontra jokatuko du talde zuri-gorriak domekan Mintxetan, eta Fernando Loiola entrenatzaileak adierazitakoaren arabera, irabaztea "derrigorrezkoa" da. Hiru partida falta dira denboraldia amaitzeko, eta "hiru final" jokatu beharko dituztela esan du Aistia-San Migeleko entrenatzaileak. "Domekan irabaziz gero, lasaiago joango gara Azpeitira Lagun Onak taldearen kontra jokatzeraz", gaineratu du. Azken partida Portugaleteren kontra jokatuko dute etxean.

Domekako partida 16:30ean hasiko da, eta herritarren babesa garrantzitsua izango dela azaldu du Loiolak.

Mendaroko I. mendi lasterketa jokatuko dute domekan

Lasterkariak 25 kilometroko ibilbidea egingo dute

Mendaroko I. mendi lasterketa antolatu du Mendaroko Txirinduralli Elkarteak domekarako. Herriko Enparantzatik abiatuko dira korrikalariak 10:00etan, eta 25 kilometroko ibilbidea egin beharko dute: Etun, Madariaga, Munitxibarren, Larraskanda, Otarre, Erentza, Gaintxipixa, Lizarpe, Garalutz eta Herriko Enparantza.

Interesatuak ondorengo lekuetan eman dezakete izena: Mendaroko Morroskillo dendan, Elgoibarko Iriondo Kirolak eta Astigarraga Gys Sport dendetan, eta Eibarko Intersport Askasibar dendan. Internez ere badago aukera, www.herrikrossa.com helbidean. Domekan bertan ere egongo da izena emateko aukera, lasterketa hasi baino lehen. Aurrez izena ematen dutenek 15 euro ordaindu beharko dituzte, eta egunean bertan ematen dutenek, 18 euro.



Lehenengo hiru sailkatuak sarituko dituzte antolatzaileek, bai emakumezkoetan eta baita gizonezkoetan. Horrez gain, hiru sari berezi ere izango dira helmugaratzen diren lehen bi beteranoei eta lehenengo mendaroarrari. Sari banaketaren ostean, kirol produktuak banatuko dituzte partaide guztien artean.

Kirol udalekueetan parte hartzeko izenematea

Kirol Patronatuak kirol udalekuak antolatu ditu, 2004 eta 1999 urteen artean jaiotako umeentzako, eta maiatzaren 2an irekiko dute izena emateko epea. Kirol Udalekuak ekainaren 27tik uztailearen 22ra bitartean egingo dira, astelehenetik barixakura, 9:30etik 12:30era. Partaideek hainbat kirol praktikatzeko aukera izango dute Mintxetan, kiroldegian eta ikastolako frontoian. Interesatuak kiroldegian eman dezakete izena. Bazkideek 82 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek 92 euro.

Tenis eta padel txapelketak antolatu ditu 40-15 elkarteak

40-15 elkarteak 14 urtetik gorakoentzako tenis eta padel txapelketak antolatu ditu, Patronatuaren laguntzaz, eta maiatzaren 16an hasiko dira partidak. Padel txapelketa binaka jokatuko da, eta tenis txapelketa bakarka edo binaka jokatu ahal izango da. Padel eta binakako tenis txapelketan parte hartzeko 20 euro ordaindu beharko ditu bikote bakoitzak, eta teniseko bakarkako txapelketan parte hartzeko 15 euro ordaindu beharko dira. Izena emateko epea maiatzaren 13an amaituko da. Interesatuak ondorengo telefonoetara deitu dezakete: Padel txapelketa: 687 421 602 (Gorka) edo 670 665 797 (Javi) / Tenis txapelketa: 696 577 872 (Luis) edo 670 665 797 (Javi)

Mendaroko Eskolarteko Arno taldea Gipuzkoako eskubalo txapelketan

Alebin mailako Arno taldea Gipuzkoako eskubalo txapelketa jokatuko sailkatu da. Gipuzkoako hamabi taldek hartuko dute parte txapelketan, sei taldeko bi multzotan. Sei talde horiek elkarren arteko ligaxka jokatuko dute maiatzean zehar, eta ekainaren 12an izango da finala.

9.000 euroko laguntza jasoko du Mintxeta atletismo taldeak, Mamo Wolde saria sustatzeko



Foru Aldundiak 9.000 euroko dirulaguntza emango dio Mintxeta atletismo taldeari datozen hiru urteotan, junior mailako Mamo Wolde saria sustatzeko. Aurrez, beraz, Mamo Wolde Gipuzkoa Saria izena hartuko du. Sinadura ekitaldian ondorengoek hartu zuten parte: Iñaki Ugarteburu Foru Aldundiko kirol zuzendariak, Alfredo Etxeberria Elgoibarko alkateak, Zigor Diez Mintxeta taldeko kideak eta Rikardo Garate kirol zinegotziak.

LANA

ESKAERA

- Emakumea garbiketa lanak egiteko edo nagusiak zaintzeko prest. Interna edo orduka. ☎ **635 313 375**
- Esperientziadun emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egiteko edo umeak eta nagusiak zaintzeko. ☎ **626 914 904**
- Nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanak egingo nituzke. ☎ **663 115 241 (Beby)**
- Emakumea etxeko lanak egiteko prest. Orduka edo interna moduan. ☎ **648 736 067**
- Gizona txofer lanetarako prest. B1 gidabaimena daukat. ☎ **650 538 274**
- Esperientziadun neska eskaintzen da garbiketa lanak egiteko edo umeak eta nagusiak zaintzeko. ☎ **648 603 029**
- Emakumea garbiketa lanak egiteko prest, orduka. ☎ **680 808 125**
- Emakumea garbiketa lanak egiteko prest, orduka. ☎ **660 651 569**
- Mutila lanerako prest. Nagusiak zaintzen, mezulari edo bestelako lanen batean ariko nintzateke. ☎ **682 384 433**
- Neska lanerako prest. Garbiketa lanak egin edo nagusiak edo umeak zainduko nituzke, interna edo orduka. ☎ **646 821 678**
- Emakumea sukalde laguntzaile jarduteko, garbiketa lanak edo pertsona nagusiak zaintzeko. ☎ **671 343 612 / 943 531 931**
- Emakumea nagusiak edo zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **608 474 923**
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. ☎ **943 742 201 / 652 715 908**
- Emakumea edozein lan egiteko prest. Interna edo orduka. ☎ **616 690 415**

- Gizona edozein lan egiteko prest. Baserrian ere egingo nuke. ☎ **685 212 060**
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientziaduna. Psikologia eta geriatria ezagutzak ditut. ☎ **635 313 375**
- Gizona eskaintzen da banaketa lanak egiteko. B gida-baimena daukat. ☎ **650 538 274**
- Emakumea sukaldari laguntzaile edo umeak zaintzeko prest. Esperientziaduna. ☎ **610 545 505**
- Emakumea lanerako prest. Interna moduan. Erreferentziak ditut. ☎ **636 581 194**
- Tornugilea lanerako prest. 25 urteko esperientzia daukat. ☎ **609 040 872**
- Emakumea lanerako prest. Garbiketa lanak egin edo umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientziaduna. ☎ **650 152 866**

ESKAERA

- Umea zaintzeko pretsona behar da. Euskaraz jakitea baloratuko da. Astelehenetik ostiralera (15:30-18:30) ☎ **639 223 296 (21:00-22:00)**
- Tabernarako zerbitzaria behar da. ☎ **943 741 600**
- Ingeleseko irakasle bila nabil. Klase partikularrak arratsaldez jaso nahi ditut. Ander. ☎ **669 645 514.**

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUA ETA SALMENTA

- Emakumeak bi logelako pisua hartuko luke alokairuan Elgoibarren. ☎ **626 641 318**
- Atikoa salgai Altzolan, Donostia kaleko 4an. 42.000 euro. Negoziagarria. ☎ **638 700 639**
- Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **648 603 029**
- Conil. Pisua alokatzen da. Hiru logela eta garajearekin. ☎ **653 733 457**

- Pisua alokatzen dut Ramales herrian (Kantabria). As-te Santua eta opor denboraldietan. Txalet ederra dugu alokairuan. ☎ **653 733 457**
- Apartamentua alokatzen dut Mendaron. Altzariekin, dena kanpoaldera. ☎ **636 631 632**
- Etxea salgai Elgoibarren. Hiru logela, sukaldea, kumuna eta egongela. Berritua, oso egoera onean. Prezio interesgarria. ☎ **688 658 183**
- Pisua salgai Urasandin. Hiru logela, bi bainugela, sukaldea, egongela handia eta ganbara. Oso argitsua. ☎ **628 525 471**
- Neska gazteak logela hartuko luke alokairuan. ☎ **610 545 505**
- Emakumeak pisua hartuko luke alokairuan. ☎ **608 474 923**

GARAJEAK

- Bi garaje itxi saltzen dira Jausoro Plazan. ☎ **943 741 129**
- Garaje itxia salgai Urasandin, Anaiak eraikinean. 13m² + 13m². ☎ **620 856 768**

BESTELAKOAK

- Diruzorroa aurkitu dut kiroldegi inguruan. ☎ **608 201 390**
- Auto kargatzailea salgai, kapotarekin. 350 kiloko. Merkea. ☎ **639 933 281**

ESKERTZA

EDURNE GABILONDO AIZPITARTE



*Enborra fina, sustrai sendoak
Apaltasunaren eredu
Beti besteei bizitza erraztu
Hori zenuen helburu
Eskerrik asko bihotz-bihotzez
Edurne eman nahi dizugu
Zure indarraren zati bat beti
Gugan eramango dugu*



Etxekoak, osaba-izebak eta lehengusuak



• Zorionak, **Unax**, zure hirugarren urtebetetzean. Aittittaren, amamaren, gurasoen eta Oierren partez.



• Zorionak, **Alain**, astelehenean, hilaren 25ean, 8 urte egin zenituelako. Familiakoen eta bereziki Marenen partez.



• Zorionak, **Nadeh**, zure hirugarren urtebetetzean. Osaba-izeben eta amonaren partez.



• Zorionak, **Maren!** Gaur 6 urte. Patxo handi bat, etxeko eta bereziki Noraren eta Jonen partez.



• Zorionak, **Aiur**, asteazkenean 3 urte bete zenituelako. Patxo potolo bat familiakoen, Aneren eta lehengusuen partez.



• Zorionak, **Nora**, 14 urte beteko dituzulako ostegunean. Patxo handi bat gurasoen eta Aneren partez.



• Zorionak, **Galder** 5 urte egin dituzulako. Familiakoen eta batez ere anaia Oierren partez.



• Zorionak **Garaziri** maiatzaren 3an 7 urte egingo dituelako. Muuaa!, familiakoen partez.




• Zorionak, **Enara**, igandean 2 urte egingo dituzulako! Muxu bat familiako guztien eta, bereziki, Unax, Duna eta Edithen partez.



• Zorionak, **Unax**, hilaren 21ean 7 urte potolo egin zenituelako. Maddi, Ane eta etxekoen partez.



• Zorionak **Naroa eta aitabxo**, zuen urtebetetzea izan delako. Familiakoen, eta, bereziki, Nahiaren partez.



• Zorionak, **aitona eta amofii** familia osoaren partez. 60 urte elkarrekin, eta beti bezain zoriontsu. Muxu handi bat.



• Zorionak, **Maddi printzesa**, hilaren 22an 5 urte egin zenituelako. Etxeko eta bereziki Jokinen partez.



• Zorionak **Jon eta Lucia** 6 urte bete dituzuelako. Familiako guztien partez.



• Zorionak, **Markel**, maiatzaren 3an 2 urte egingo dituzulako! Zorionak, **aitabxo**, apirilaren 17an zure urtebetetzea izan zelako. Muxu handi bana!



• Zorionak, **bikote**, astelehenean 8 urte egin zenituztelako. Muxu handi bana, etxeko partez.



• Zorionak, **Hartzart**, atzo 6 urte bete zenituelako. Laieneren eta Zugatzen partez, muxu asko.

Erretratu bakarreko agurra: 3 euro. Argazki bikoitza: 5 euro. Hirukoitza: 7 euro. Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 euro.

Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar duzu. BARRENeKo bulegora 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.

29 barixakua

Erakusketa

19:00 Margo erakusketa
Koldo Etxeberriaren margo erakusketa, Kultur Etxean.

Musika

19:00 Kale kantarien entsegua
Hileko azken zapatuko ferian kantatzeko entsegua egingo dute Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

30 zapatua

Feria

9:00 Azken zapatuko feria
Hileroko nekazaritza eta abeltzaintza feria.

Manifestazioa

17:30 Amaldo Otegiren aldeko manifestazio nazionala
Plaza Handian hasita.

1 domeka

Kirola

10:00 Mendaroko Mendi Lasterketa
Herriko Enparantzan.

3 martitzena

Santa Kurutz eguna

11:00 Meza
San Rokeko ermitan.

6 barixakua

Afaria

21:00 EAJren afaria
Sigma jatetxean egingo dute afaria. Interesatuak deitu ondorengo telefono zenbakira: 675 718 466



BAZKIDE izateko hirugarren epea zabalik. Maiatzetik uztailera arteko kuota 15 euro! Informazio gehiago luditokan.




Larunbatean **BARBAKOA**
San Lorentzon, 18:00etan.
Izenematea, gaztelekuan.
Domekan itxita.

Elgoibarko Izarrako Haurrak eta Gazteak Arloak koordinatzailea behar du

Eskatzen da:

- Talde lanean jarduteko gaitasuna.
- Antolakuntzarako eta plangintzarako gaitasuna.
- Microsoft Office menderatzea.
- Gidabaimena eta kotxea izatea.

Eskaintzen da:

- Abendura arteko kontratua (luzatzeko aukerarekin).
- Egun erdiko lan-jarduna 

Interesatuak curriculumak bidali, malatzaren 6a baino lehen, e-posta honetara:

atxutxiamaika@elgoibarkoizarra.com

(Nalara 943 74 16 26)



B
BARREN
astekarian
943 743 704

Jarri ezazu zure publizitatea

OKINDEGIA

1 domeka EIZAGIRRE

FARMAZIAK (24 orduz)

29	Etxeberria (Errosario)
30	Ibañez Goizez, Etxeberria (Santa Ana)
1	Ibañez
2	Garitaonandia-Bidasolo
3	Etxeberria (Santa Ana)
4	Fernandez
5	Yudego
6	Zabaleta

Fernandez - Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro) - Tel: 943 756 142

Ibañez -Rekalde, 1 (Soraluze)
Tel: 943 751 638

Zabaleta - Kalebarren, 9 (Soraluze)
Tel: 943 751 384

ZINEA

«El discurso del rey»

29, barixakua: 22:15
30, zapatua: 19:00/22:15
1, domeka: 19:00
2, astelehena: 21:30

«Ga'Hoole la leyenda de los guardianes»

1, domeka: 16:30

«El discurso del rey» Zuzendaria: Tom Hooper. Erresuma Batua, 2010. Iraupena: 118 minutu. Generoa: Drama historikoa. Aktoreak: Colin Firth, Geoffrey Rush, Helena Bonham Carter, Guy Pearce. Jorge V. erregea hil ondoren, eta Eduardo VIII. erregeak abdikatu ostean, Bertiek hartuko du Ingalaterrako tronua, Jorge VI. izenarekin. Umetatik hitz egiteko arazoak ditu, eta emazteak Lionel Logue logopeda kontratatuko du, erregeari publikoki hitz egiten irakasteko. Gerra hastear dago, eta estatuak lider bat behar du.

«Ga'Hoole la leyenda de los guardianes» Zuzendaria: Zack Snyder. EEBB, 2010. Iraupena: 98 minutu. Generoa: Animazioa, fantasia. Soren ontz gaztea da abentura honetako protagonista. Aitak Ga'Hoole-eko zindarien istorioak kontatzen dizkio, eta liluratuta entzuten ditu. Egunen batean bere idoloen taldeko beste bat izatea da Sorenen ametsa.

LA SALLE AZITAIN IKASTETXEA

2011-2012 ikasturterako eskaintza

BATXILERGOAK (A eta D)

ZIENTZIAK ETA TEKNOLOGIA / GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

**Badugu
ikasteko
leku bat
zuretzat!**

La  **Salle**
Eibar



Euskadi
2 0 0 9

943 121 698

maiatzaren
2tik 11ra





Elgoibar Arreiture BHI

Arreitorre 2

Tel.: 943 748 397

E-posta: 013431aa@hezuntza.net

www.elgoibarbhi.net

ELGOIBAR ARREITURRE BHI 2011-2012 IKASTURTEA



**Aurrematrikulazio datak: maiatzaren 2tik 11ra.
Ikastetxea ikusi eta ezagutu nahi duen ororentzat
ateak irekiak maiatzaren 2an egun osoan.**

BATXILERREKO ESKAINTZA

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA

Osasun zientziak

Zientzia eta teknika

HUMANITATEAK ETA GIZARTE ZIENTZIAK

Gizarte zientziak

Humanitateak



EUSKO JAURLARITZA
HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETIAKONOMIA SAIA



GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
LIMPIEZA Y ENVIRONMENTAL